

UNAMUNOREN DAMUA.—Euskalerrriaren etsai direnek, grinez daramate euskararena ere. Eta, euskarari buruzkoan beti azalduko digute 1901 eta 1902an Bilboko Lora Jokoetan Unamunok irakurri zituen hitzaldiak (bere *Obras completas*-en II. tomoko 551 orr. eta VI.aren 326. orrialdeetan agertzen dira), funtsean, agerrera nahi zuena ulertu gabe. Jaramon guti egin diote M. Ugaldere *Unamuno y el vascoence* (Buenos Aires, 1966) liburuari eta ez dut espero nik zenbait aldiz euskaraz idatzi ditudanak (horien artean *Egan*-en 1982an eman nuena) haintzat hartuko dituztenik. Unamunoren in-tentzioak, ber-berak aitortu zuenez, bestelakoak izan ziren: ez zijoazten Euskal Herriaren kontra.

Maizenik paradójikoa bazen ere, Unamunok inoiz baze-kien bere esaneri eta idatzieri zuzenketak eta oharrak egiten eta Bilbon Lora Jokoetan esan zuenari Madrid-eko *Nuestro Tiempo* aldizkarian zenbait argitasun eman zituen 1905eko uztailaren 10eko alean (ikus *Obras completas*, III, 870 orr.). Hara hemen hitzez-hitz bertan ziona:

«... en los elogios que por aquel acto me han prodigado, hay un fondo repugnante, hediondamente repugnante. No me alaban lo que se llama patriotismo; no el decir serena y tranquilamente la verdad, no; les regocijó el ver que se sintió herido en vitales sentimientos un pueblo, mi pueblo vasco, al que aborrecen. Fui, sin quererlo, un instrumento de sus mezquinas pasiones».

Baina horrek bedorrek erakusten digu herri bati, edo-zein herriri, zein garrantzizkoa zaion bere hizkuntza jatorra. Hau ere, lan osoen tomo berean, aurreraxeagoko lan batean, agertzen digu: «La lengua es el receptáculo de la experiencia de un pueblo y el sedimento de su pensar; en los hondos repliegues de sus metáforas (y lo son la inmensa mayoría de los vocablos) ha ido dejando sus huellas el proceso de la fauna viva. De antiguo, los hombres rindieron adoración al *verbo*, viendo en el lenguaje la más divina maravilla».